




ESTADÍSTIKA

Ikus-entzunezko Industria Kulturalak



Aurkibidea

Sarrera metodologikoa	3
------------------------------	----------

1. AGENTEEN EZAUGARRIAK	5
1.1. Agenteen mapa	5
1.2. Ibilbidea	7

2. DIMENSIO EKONOMIKOA	9
2.1. Diru-sarrerak eta gastuak	9
2.2. Enplegua	11

3. JARDUERA	14
3.1. Jardueraren bolumena	14
3.2. Jardueraren ezaugarriak	15

SARRERA METODOLOGIKOA

Kultura Industriari buruzko Estatistika abian jartzearen helburua ikus-entzunezkoen sektoreak eta sektore diskografikoak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten errealitatea zein den jakitea izan da. Zehaztasunez ezarri nahi izan da agente produktoreen mapa eta, halaber, agente horien jarduera ekonomikoaren, sortzen duten enpleguaren eta produkzio-jardueraren ezaugarriak azaldu nahi izan dira.

Hauxe da ikerlan mota honi EAEn ekiten zaion lehenengo aldia, ezaugarri jakin batzuek dituen eremu batean, hots, kultura-eremuan duen garrantziarekin. Eremu horrek, ezaugarri gisa, estatistika-informazio urria du eta erkaketak egitea (sektoreen artean, beste lurralde-errealitate batzuekin) ahalbidetuko duen eta sektore horiek osatzen dituzten agente guztiek (publikoak eta pribatuak) erabakiak hartzea erraztuko duen informazioa biltzeko metodo estandar bat ezartzeko premia du.

Lehenengo edizioa denez gero, oraingo honetan, eragiketaren diseinua eta agenteen errolda gauzatzeko ahaleginak egin dira, batez ere. Ondorengo edizioetan datu-corpusa eratuko da, eta sektoreen denbora-bilakaera aztertu ahal izango da hari esker.

Diseinu-faseak hartu duen garrantziak ekarri du parte-hartze fasea handitzea. Fase horretan, sektore bakoitza ordezkatzen duten elkarteei eskatu diegu beren ezagutzaren berri emateko eta iruzkinak nahiz proposamenak egiteko, galdesorten diseinua egokitu eta agenteen erroldak garbitzearren.

Bildutako informazioaren erreferentzia-urtea 2007a da. Datu hori oso kontuan izan behar da data horretatik gaur egun arte aldaketa asko gertatu direlako, neurri batean ziklo-aldaketa adierazten duten garrantzi handiko eraldaketak, hain zuzen ere. Ekonomia-krisi globalaren testuinguruaz gain, kultura-industriak teknologia berrien inpaktuarekiko sentikorrak dira maila guztietan (enpresa-egitura mota, jarduera mota eta bolumena, banaketa eta abar). Ildo horretatik, litekeena da 2007ko datuek ezin islatu izatea gaur egungo berezkoak diren errealitate berriak.

Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena
Kultura Industrien Estatistika – Ikus-Entzunezkoen Industria
Eragiketaren estatusa
Eustatek ofizial egina
Aldizkakotasuna
Bi urtean behin
Eragiketa mota
Erroldaren eragiketa
Informazioa biltzeko aldia
2008ko irailetik 2009ko maiatzera bitarte
Informazioaren erreferentzia-urtea
2007
Landa-lana egiteko ardura duen enpresa
Append
Kontsultatutako elkarteak
IBAIA EIKEN Ikus-entzunezkoen clusterra EPE – APV

Kontzeptuzko definizioak

Ikus-entzunezkoen produkzio-etxeei buruzko azterlanak duen irismena mugatzeko, hainbat oinarritzko irizpide eta definizio ezarri dira.

Honako hau hartzen da ikus-entzunezkoen produkzio-etxetzat: EAEn egoitza duen erakunde oro, jarduera nagusia ikus-entzunezkoen produkzioa duena, edozein motatakoa (zinema, dokumentala, publizitatea eta abar) eta edozein euskarritan.

Errolda egiteko honako irizpide hauek ezarri dira:

- Azken hiru urte hauetan tituluren bat produzitu duten ikus-entzunezkoen produkzio-etxeak soilik hartu dira kontuan.
- Enpresa-izaera duen ikus-entzunezkoen produktu mota oro produzitu duten ikus-entzunezkoen produkzio-etxeak soilik hartu dira kontuan. Hortaz, produkzio-etxe zinematografikoak eta telebistarako edo beste kanal batzuetarako produkzio-etxeak hartu dira aintzat.

Errolda eta erantzun-maila

Azken erroldan ikus-entzunezkoen produkzioa gauzatzen duten 84 enpresa bildu dira. % 86ko erantzun-maila lortu da, eta balioetsitako erantzunak % 14 izan dira.


1. AGENTEEN EZAUGARRIAK

1.1. AGENTEEN MAPA


EAEko ikus-entzunezkoen produkzioa 84 produkzio-etxeren eskuetan dago, eta horien artean ekimen-aukera handia dago, bai duten dimentsioagatik, bai garatzen duten jarduera eta produktu tipologiagatik. Produkzio-etxeak hiru lurralde historikoetatik bitan daude bilduak, Bizkaia eta Gipuzkoa artean ia erdibana.

Produkzio-etxe horiek aztertzeko, beren jarduera nagusiaren arabera bereiz daitezke. Horrela bada, % 23,8k (20 produkzio-etxe) produkzio zinematografikoak egiten ditu, % 19,1ek telebista-produktuak produzitzen ditu (16); % 16,67k dokumentalak (14); % 9,5ek publizitatean lan egiten du (8); eta, azkenik, % 31k ez dauka hain garbi definitutako jarduera nagusirik (26).

1. irudia. Produkzio-etxeak, lurraldearen arabera. 2007



2. irudia. Produkzio-etxeak, tipologiaren arabera. 2007



Oharra: Tipologia produkzio-etxeek gauzatzen duten jarduera nagusiaren azterketa objektiboa oinarri hartuta egin da (ez da, beraz, produkzio-enpresek emandako berezko definizioa). «Produktu mistoak» egiten dituzten produkzio-etxeen kasuan ez dago jarduera nagusirik, baizik eta jarduera hori hainbat motatako produktutan banatzen da.

EAEko ikus-entzunezkoen produkzio-etxe gehienek dimentsio txikia dute; enpresa horien % 61,9k milioi-erdi bat eurotik beherako diru-sarrerak ditu urtean. Hala eta guztiz ere, milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzten 18 produkzio-etxe daude; zenbateko hori, halaber, ezin da esan oso handia denik, baldin eta industria hori bereizten duten kostuak kontuan hartzen baditugu.


Telebistaren alorreko produkzio-etxeak dira dimentsio handiena dutenak; izan ere, tipologia horretako 16 produkzio-enpresen artetik 11k milioi bat euroko urteko fakturazioa gainditzen dute. Zinemaren alorreko produkzio-etxeen artean, erdiek baino gehiagok (20 produkzio-etxetatik 11) milioi-erdi batetik beherako diru-sarrerak dituzte, eta soilik 4k dituzte milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak. Bestalde, publizitatearen alorreko produkzio-etxeek tarteko dimentsioa dute batez ere: zortzi produkzio-etxetatik lau diru-sarreraren bitarteko tartean daude, eta gainerako lauei dagokienez, bi goiko tartetan daude, eta beste bi beheko tartetan. Azkenik, dokumentalen alorreko produkzio-etxeen kasuan nahiz beste produkzio-etxeen kasuan, ikusten da dimentsio txikiko enpresak, hots, urtean milioi-erdi bat eurotik beherako diru-sarrerak dituzten enpresak nabarmentzen direla.

3. irudia. Produkzio-etxeak diru-sarreraren tartearen eta tipologiaren arabera. 2007

	Zinema	Dokumentala	Publizitatea	Telebista	Bestelako produkzio-etxeak	GUZTIRA	
						Maizt.	%
500.000 € baino gutxiago	%55,0	%85,7	%25,0	%18,8	%92,3	52	%61,9
500.000-1.000.000 €	%25,0	%14,3	%50,0	%12,5	%3,8	14	%16,7
1.000.000 € baino gehiago	%20,0	%0,0	%25,0	%68,8	%3,8	18	%21,4
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	84	%100,0

Bizkaia da diru-sarrera bolumen handia duten produkzio-etxeen presentzia handiena duen lurralde historikoa. Izan ere, Bizkaiko 38 produkzio-etxeen artetik 10ek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzte. Bestalde, Arabako produkzio-etxe guztiek (7) milioi bat eurotik beherako diru-sarrerak dituzte. Gipuzkoan ere produkzio-etxe txikiak nagusitzen dira, nahiz eta 8 ekimenek (guztizkoaren % 20,5) milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzten.


4. irudia. Produkzio-etxeak diru-sarreraren tartearen eta lurraldearen arabera. 2007



1.2. IBILBIDEA


EAEko produkzio-etxe gehienek duela gutxi ekin diote beren ibilbideari. Enpresa horien % 13,1ek soilik ekin zion bere ibilbideari laurogeita hamarreko hamarkada baino lehen. Esan daiteke, beraz, sektore dinamikoa dela, duela gutxiko ekimen asko dituena. Segur aski, ekimen berriak agertu izana sektoreak izan duen eraldaketa handiak azalduko du; izan ere, dimentsio edo kostu txikiagoko proiektuak egiten laguntzen duten teknologia berriak ezartzeko prozesuarekin asko aldatu da sektorea.

5. irudia. Produkzio-etxeak, jarduerari hasiera eman zitzaioneko urtearen eta tipologiaren arabera. 2007



Produkzio-etxeen diru-sarrera maila kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu diru-sarrera handienak dituzten enpresen artean ibilbideak ere luzeagoak direla. Aitzitik, dimentsio txikiagoa dutenen artean, produkzio-etxe askok duela gutxi ekin diote beren jarduerari. Ondoriozta daiteke, beraz, nolabaiteko dimentsioa lortzeko, urteetako ibilbideak bere garrantzia duela.

6. irudia. Produkzio-etxeak, jarduerari hasiera eman zitzaioneko urtearen eta diru-sarreraren tartearen arabera. 2007



2. DIMENTSION EKONOMIKOA

2.1. DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

EAEko ikus-entzunezkoen industriak urtean 70 milioi euro kudeatzen ditu. Argi dago telebistaren alorreko 16 produkzio-etxeek biltzen dutela aurrekontuaren bolumen handiena, gastuak 35,2 milioi euro baitira, eta sarrerak 39,2. Bigarrenik, aurrekontu-bolumenari dagokionez, zinemaren alorreko produkzio-etxeak daude, 17,4 milioiko diru-sarrerekin eta 18,9 euroko gastuekin.


7. irudia. Diru-sarrerak eta gastuak produkzio-etxearen tipologiaren arabera, milioi eurotan. 2007

	Zinema	Dokumentala	Publizitatea	Telebista	Bestelako produkzio-etxeak	GUZTIRA
Diru-sarrerak	17,4	3,8	5,6	39,2	6,1	72,1
Gastuak	18,9	4,0	5,2	35,2	5,6	69,0

Nolanahi ere, sektorearen zenbaki handietatik haratago, EAEko produkzio-etxeei buruzko azterketa zehatzago bat egiten badugu, hurbilketa hobea ahalbidetuko duten datuak lortuko ditugu. Produkzio-etxeen dimentsioa mozkinak lortzearekin erlazionatzen badugu, ikusiko dugu produkzio-enpresen % 64,3k mozkinak lortu dituela 2007an; horien artetik % 21,4k bere fakturazioaren % 10etik gorako mozkinak lortu ditu. Egoera horretan daude, hain zuzen ere, publizitatearen eta telebistaren alorreko produkzio-etxe gehienak eta bestelako produkzio-etxe gehienak.


Emaitza negatiboei dagokienez, produkzio-etxeen % 35,7k defizitarekin itxi du 2007ko ekitaldia eta % 21,4k bere fakturazioaren % 10etik gorako defizitarekin. Defizit hori, neurri handi batean, zinemaren eta dokumentalen alorreko produkzio-etxeek izan dute; bi kasuetan produkzio-etxeen % 70 inguruk emaitza negatiboa izan baitu.

8. irudia. Produkzio-etxeen emaitza ekonomikoa, tipologiaren arabera. 2007




Diru-sarrerei dagokienez, argi eta garbi ikusten da bi errealitate daudela produkzio-etxeen tipologia kontuan hartzen badugu. Produkzio-etxeen diru-sarrerak, orokorrean, salmentetatik etortzen dira; aitzitik, hainbat kontzeptuk (diru-laguntzak edo beste mota batzuetako diru-sarrerak, esaterako) produkzio zinematografikoan dute garrantzia. Izan ere, zinemaren alorreko produkzio-etxeen artetik, diru-sarreren % 18,3 diru-laguntzetatik eratortzen da, eta % 19,1 beste kontzeptu batzuetatik.

9. irudia. Produkzio-etxeen diru-sarrerak diru-sarreraren kontzeptuaren eta tipologiaren arabera. 2007



Gastuei dagokienez, gastu nagusia langileek eragiten dutena da: guztizkoaren % 53,7. Langileen gastua nagusitzen da, argi eta garbi, produkzio-etxe tipologia guztietan, nahiz eta garrantzi handiagoa duen publizitatearen eta telebistaren alorreko produkzio-enpresetan, eta txikiagoa dokumentalaren eta zinemaren alorrekoetan. Azken horiek, dute, hain zuzen ere, gastu handiena jardueraren alorrean eta beste gastu batzuetan (hornidura, alokairuak, zerbitzuak eta abar).

10. irudia. Produkzio-etxeen gastuak gastuaren kontzeptuaren eta tipologiaren arabera. 2007




2.2. ENPLEGUA

EAEko ikus-entzunezkoen industriak lanaldi osoko 916 laguni ematen die lana, batez beste. Landunen erdia baino gehiago telebistaren alorreko 16 produkzio-etxeetako langileak dira, enpresa bakoitzeko 31,6 langileren batez bestekoarekin. Publizitatearen alorreko produkzio-etxeak bigarren postuan daude enpresa bakoitzeko langileen batez bestekoari dagokionez, telebistaren alorreko produkzio-etxeetatik urrun, azken horiek 13,2ko batez bestekoa baitute, eta industriako guztizko langileen % 11,5 laguni ematen diote lana.

Produkzio-etxe gehien dimentsio txikia ere islatuta dago landunen kopuruan, batez bestekoa, orokorrean, enpresa bakoitzeko 10,9 langile baita, eta batez bestekoak askoz txikiagoak dira zinemaren eta dokumentalen alorreko produkzio-etxeetan eta bestelako produkzio-etxeetan.

11. irudia. Produkzio-etxeen enplegua, tipologiaren arabera. 2007




12. irudia. Produkzio-etxeek sortutako erabateko enplegua (lanaldi osoko langileak, batez beste) eta enpleguaren batez bestekoa, tipologiaren arabera. 2007

	Zinema	Dokumentala	Publizitatea	Telebista	Bestelako produkzio-etxeak	GUZTIRA
Langileak (lanaldi osokoak, batez beste)	130	57	106	506	118	916
Batez bestekoa	6,5	4,1	13,2	31,6	4,5	10,9


Produkzio-etxeetako langileen erdia baino gehiago teknikariak dira. Hori da tipologia guztien kasua, nahiz eta dokumentalen alorreko produkzio-etxeei dagokienez % 71,1 diren. Kudeaketako langileak guztizkoaren % 21 dira; nolana ere, publizitatearen alorreko produkzio-etxeek eta zinemaren alorrekoek garrantzi handiagoa dute (% 38,2 eta % 34,9, hurrenez hurren). Soilik zerbitzuetako langileek dute presentzia handia telebistaren alorreko produkzio-etxeen kasuan; izan ere, arestian ikusi dugunez, produkzio-etxe horiek dute dimentsio ekonomiko handiena, baita enpleguari dagokionez ere, eta, hortaz, lan-egitura konplexuagoak garatzen dituzte.

13. irudia. Landunak, dedikazioaren eta produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007



EAEko ikus-entzunezkoen industriaren ezaugarria, neurri handi batean, kontratazioa behin-behinekoa izatea da; izan ere, langileen % 43,5ek kontratazio mota hori du. Bereziki garrantzitsua da telebistaren alorreko produkzio-etxeen kasuan, alor horretako langileen % 56,6 hartzen baitu eraginpean; datu hori nabarmendu behar da kontuan hartzen badugu produkzio-etxe mota horrek langileen erdia baino gehiago hartzen duela bere baitan.

14. irudia. Landunak, kontratazio motaren eta produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007




3. JARDUERA

3.1. JARDUERAREN BOLUMENA


84 ikus-entzunezkoen produkzio-etxeek, 2007an, 875 produkzio egin zituzten; horien artetik gehienak telebistaren alorreko produkzio-etxeen ekimenak dira (% 39,5) eta ia laurden bat dokumentalen alorreko produkzio-etxeenak. Esan behar dugu zinemaren alorreko produkzio-etxeek produkzioen % 2,2 soilik sortu dutela; gertakari hori ulertzeko kontuan izan behar da produkzio-etxe mota horren produkzio-kostua desberdina dela eta produkzio-etxe horiek garatzen dituzten proiektuak bereziak direla.

Diru-sarreraren tarte, hau da, produkzio-etxearen dimentsioa aintzat hartzen badugu, ikusiko dugu dimentsio handiena duten produkzio-etxeek (milioi bat eurotik gorako diru-sarrerekin) egin dituztela produkzioen erdiak, eta lehen postuan daudela sektorean.

15. irudia. Produkzioak produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007




16. irudia. Produkzioak, produkzio-etxearen tipologiaren eta diru-sarreraren tartearen arabera. 2007



3.2. JARDUERAREN EZAUGARRIAK

2007an EAEn egin ziren produkzioen % 44,9 dokumentalak dira, eta % 15,1 publizitatearen alorrekoak; nolahi ere, bi genero horiek dira produkzio gehien egin dituztenak. Telebista-programak produkzioen % 8,7 dira, eta film luzeak % 1,8.


17. irudia. Produkzioak generoaren arabera. 2007



Oharra: Dokumentalen alorreko produkzio kopurua handia da egilearen produkzioez gain batez ere telebistan emateko egindako iraupen laburreko dokumentalak ere barnean hartzen direlako.


Funtsean, esan behar da aurrekontu txikiko produkzioak direla; izan ere, produkzio horien % 79,4ren aurrekontua 100.000 eurotik beherakoa izan da. Miliroi bat eurotik gorako aurrekontua izan duten produkzioak guztizkoaren % 2,1 dira soilik, eta zinemaren alorreko produkzio-etxeen jarduerarekin bat datoz. Gainerako produkzio-etxeei dagokienez, aurrekontu txikiko ekimenak nagusitzen dira argi eta garbi, nahiz eta publizitatearen alorrekoen artean garrantzi handiagoko zenbait proiekturi egiten zaien aurre.

18. irudia. Produkzioak produkzio-aurrekontuaren eta produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007




Hamar produktiotik zazpitan euskarazko eta gaztelaniazko bertzioak eskaintzen dira. Soilik gaztelaniazko bertzioan egindakoak guztizkoaren % 14,7 dira, eta esan behar da hizkuntza hori nagusitzen dela zinemaren arloko produkzio-etxeen produkzioetan.

19. irudia. Produkzioak hizkuntzaren eta produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007



Agente finantzatzailearen araberrako finantziazioaren banaketak erakusten du alde handiak daudela produkzio-etxeen tipologiaren artean. Izan ere, orokorrean, finantziazioaren % 60tik gora produkzio-etxe beretik eratortzen da, aitzitik, zinemaren alorreko produkzioen kasuan, beste finantziatio-iturri batzuen garrantzia handia da: % 21,5 administrazio publikoetatik eratortzen da, eta % 18,1 telebistatik. Telebistaren alorreko produkzio-etxeen kasuan, argi dago telebistak agente garrantzitsuak direla proiektuak finantzatzeko, % 33ko parte-hartzea baitute.


20. irudia. Finantziatioaren banaketa, agente finantzatzailearen eta tipologiaren arabera. 2007



Finantziatio-eredu hauen artean dauden aldeak egiaztatzen dira produkzioaren generoa kontuan hartzen badugu. Izan ere, film luzeen eta film laburren produkzioak du administrazio publikoen


parte-hartze handiena, nahiz eta produkzio horren % 17,7 eta % 15,3, hurrenez hurren, besterik ez diren. Telebista-produkzioen kasuan (serieak edo programak) telebistaren finantza-artaidetza handia da lehenengo kasuan (% 31,8) eta nagusia bigarren kasuan (% 59,4).

21. irudia. Finantziazioaren banaketa, agente finantzatzailearen eta produkzio-generoaren arabera. 2007



Euskarazko produkzioek berezko finantziazioaren ehuneko handiagoa dute gaztelaniazko produkzioek baino; nolana ere, lehenengo produkzioek telebisten finantza-laguntza handiagoa jasotzen dute. Bi hizkuntzak erabiltzen dituzten produkzio gehienek berezko finantziazioaren % 85,9 dute.


22. irudia. Finantziazioaren banaketa, agente finantzatzailearen eta produkzio-hizkuntzaren arabera. 2007




EAEko produkzioen atzean dagoen ekipo profesionalaren artean, batez ere lurraldeko langileak daude. Hortaz, produkzioen ekipoetako 10 kidetik ia 9 EAEkoak dira. Presentzia hori handia da produkzio-etxeen tipologia guztietan (gutxiago dira, ordea, zinemaren kasuan), baina xehetasun garrantzitsuak daude produkzioaren generoa kontuan hartzen bada.

Izan ere, telebistako serietan nahiz programetan, EAEko ekipoa ez da iristen produkzio horietan sartuta dauden langileen erdira. Zinemaren kasuan, langile horien partaidetza % 58,8ra iristen da, genero gehienetatik oso urrun.

23. irudia. EAEko ekipoak produkzioetan duen partaidetza, produkzio-etxearen tipologiaren arabera. 2007



24. irudia. EAEko ekipoak produkzioetan duen partaidetza, produkzio-generoaren arabera. 2007



Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>>.



Argitaraldia:	1.a, 2010ko martxo
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Diseinua eta maketazioa:	AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com
Lege-gordailua:	VI 151-2010